

**HAUR ETA GAZTEEN KONTRAKO SEXU ABUSUAK:
LAN SAREAK EHUNTZEN.
Jardunaldia.**

JARDUNALDIA

**Haur eta gazteen
kontrako sexu abusuak:
lan sareak ehuntzen**



Iruñea, Urriak 7
Lekua: Katakarak
Ordutegia: 10:00-14:00/16:00-19:00
Izen ematea eta informazioa: www.ueu.eus

HAUR ETA GAZTEEN KONTRAKO SEXU ABUSUAK: LAN SAREAK EHUNTZEN JARDUNALDIA

Iruñean, 2023ko urriaren 7an.
Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduaren egoitzan.

EGITARAUA

Ordua	Izenburua
10:00 - 10:15	Harrera eta dokumentazio banaketa.
10:15 - 10:30	Sarrera eta ongi etorria. <ul style="list-style-type: none"> • María Napal Fraile. UEUko Talde Eragileko kidea. • Maitane Urizar Elorza. GURE SAREA elkarteko koordinatzailea.
10:30 - 11:15	HITZALDIA- Haurren kontrako sexu abusuen sekretua hausten. Problematikan kokapena. <ul style="list-style-type: none"> • Maitane Urizar Elorza. Haur eta lehen hezkuntzako irakaslea eta haur eta gazteen kontrako sexu abusuen alorrean ikerlaria.
11:15 - 12:00	HITZALDIA- Marko normatiboa. <ul style="list-style-type: none"> • Garazi Arraibi Larrea. Zuzenbidean lizentziatua, genero biolentzian eta haurren kontrako sexu abusetan espezializatua, abokatua Administrazio Publikoan.
12:00 - 12:30	Atsedena
12:30 - 13:15	HITZALDIA- Kasuen aurreko jarduketa juridiko-instituzionalaren egoera. <ul style="list-style-type: none"> • Maitane Urizar Elorza. Haur eta lehen hezkuntzako irakaslea eta haur eta gazteen kontrako sexu abusuen alorrean ikerlaria.
13:15 - 14:00	Galderak eta gogoetak tartea
14:00- 16:00	Bazkaltzeko tartea
16:00 - 16:45	HITZALDIA (Gaztelaniaz)- Eta detekzio ostean zer egin? Haurren interes gorenean oinarritutako kasuen aurreko jarduketa. <ul style="list-style-type: none"> • Cristina Esevenri. Foruzaingoko inspektorea. Brigada Asistentzialeko burua Sexu-delituetan, genero-indarkerian, etxeko indarkerian eta

	<p>eskola-jazarpenean espezializatutako unitatea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hugo Carlos Prieto. Ertzaintzako ikerkuntzako atal nagusiko pertsonen aurkako delituen arloko burua, hezkuntza-protokoloko erreferentzia-taldea. Sexu-eraso serialak eta haur eta nerabeen aurkako sexu-erasoak ikertzen aditua.
16:45 - 17:30	<p>HITZALDIA- Haurren kontrako eraso sexualak: jarduketa eremu pediatrikotik.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Amaia Arbeloa Miranda. Medikuntzan doktorea eta Euskal Herriko Pediatria Sozialaren taldeko Koordinatzailea.
17:30 - 18:15	<p>HITZALDIA- Hezkidetzeta, SKOLAE programa: prebentziorako tresna.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Oihana Etxarte Buezo. Musika irakaslea eta sexologoa. SKOLAEko programako aholkularia.
18:15 - 18:30	<p>Atsedena</p>
18:30 - 19:30	<p>MAHAINGURUA- Haurren kontrako sexu abusuak, non gaude eta norantza goaz?</p> <p>Hizlari guztien parte-hartzearekin.</p> <p>Moderatzailea: Ainhoa Zabaleta Rueda. Gizarte Pediatriako Euskal Elkarteko idazkaria eta haurren kontrako sexu abusetan eta genero biolentzian aditua.</p>
19:30 - 19:45	<p>Ondorioak eta aurrera begira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Maitane Urizar Elorza. GURE SAREA elkarteko koordinatzailea.

HITZALDIA- Haurren kontrako sexu abusuen sekretua hausten. Problematikan kokapena.

Egilea: Maitane Urizar Elorza. Haur eta lehen hezkuntzako irakaslea eta haur eta gazteen kontrako sexu abusuen alorrean ikerlaria.

Haurren kontrako sexu abusuen problematika gaurkotasun handiko gaia da, gizarte-mugimenduak azken garaian egindako lan gogorrari esker.

Uste orokortua da, gaur egun sexu-abusu gehiago ematen direla, baina hori ez da guztiz egia edo ez da guztiz datu zehatza. Izan ere, daturik egon ezean, ez lehenagokoak ezta oraingoak ere, konparaketa fidagarria egitea ezinezkoa da.

Jakin badakigu aldiz, gaur egungo testuinguru soziopolitiko eta aspaldikoa ez direla berdinak. Emakumeak eta seme-alabak familiako buru zen gizonaren mendekoak ziren, etxean gertatutakoak etxean konpondu behar zirela uste eta agintzen zuen gure gizarteak. Horrekin bat dator ez zela sexualitateaz hitz egiten, are gutxiago sexu-erasoek eta inolaz ere familia barruko sexu-erasoek, familia-esparrua izanik sexu-abusu gehienak ematen diren tokia. Bai emakume helduen kasuan, baina are gehiago haurren kasuan. Izan ere, nork utziko lituzke bere haurrak ezezagun batekin? Ezinbestean erasoak konfiantza handiko pertsona batek egin behar ditu.

Berri ona da gaia komunikabideetan oihartzuna izaten hasi dela. Baina egia ere bada, komunikabideetan gehien agertzen diren kasuak ezezagunek, orokorrean kanpotar batek, gau ilun batean kalean egindako bortxaketak direla. Halaber, eta biziraule helduen lan ausart, neketsu eta gogorrari esker, eskola edota testuinguru erlijiosoetan emandako abusuak zabaldu dira. Familia, gure gizarteko instituzio sakrosantua, berriro ere babestuz.

Zabaldutako mitoa ere bada, problematika hau oso modu puntualean geratzen dela pentsatzea. Familia txiro eta desegituratuetan, droga-mendekotasuna duen gizon zoro batek eragindakoa, zein urrunetik hauteman daitekeen, haurren sexu-erasotzaileak munstro berdeak izango balira bezala. Genero-biolentziako erasotzaileak zorotzat hartzen ziren bezalaxe.

Egia da neskatoek sexu-erasoak maizago pairatzen dituztela (nahiz eta lehen haurtzaroan modu parekoan eman). Oso ohikoa izan da orain gutxi arte, emaztearekin arazoak izan eta emakume helduaren lekua neskatoekin bete behar zuen gizonaren justifikazioa egitea edota gaur egun ere neskato gazteen janzkera edo jarrera errudun egitearen inguruko komentarioak entzutea. Sexu-erasoen erantzule bakarra, beti, erasotzailea dela albo batera utziz.

Hori guztia horrela izanda ere, gure gizarteak aurrerapauso irmoak ematen jarraitzen du. Gure babesteko gaitasuna, guk bizi dugun ahalduntzea, sororitate-lana, gure aurrekoek egindako lana gure egin eta etxeko trapu zikinak mahaigaineratzeko kolpea eman dugu maila publikoan. Arazo pribatuak deritzotenak arazo politikoak direla aldarrikatuz.

Errealitate gordina da: 5etik 1ek. Datu orokorreari dagokienez, hau da, minimoa, hortik gora izango da, inoiz ez behera. Erabateko datu sendo bezain krudela, gure haurrek begietara so, bota digutena. Hau gertatzen ari da gizarteak albo batera begiratzen duelako. Haurren interes gorena edota haurren ongizatea bezalako ideiekin ahoa betetzen zaigun bitartean.

Nola eman buelta egoerari? Arazo politikoek ez dituzte mugimendu politikoek sortzen, mugimendu politikoak dira problematika bat arazo politiko bihurtzen dutenak. Egoerari buelta emango zaio gizarteak problematika hau bere egiten duenean, paternalismotik abiatu beharrean, haurrak subjektu politiko direla aitortu eta haien interes gorena beste interes guztien gainetik dagoela behingoz onartzen dugunean. Haurrak ez dira etorkizuna, oraina baizik eta jardunaldi hau bezalako saioak izango dira, haurren kontrako sexu-abusuen sekretua guztien artean hautsiko duen beharrezko pausoetako bat.

HITZALDIA- Marko normatiboa.

EGILEA: Garazi Arraibi Larrea. Zuzenbidean lizentziatua, genero biolentzian eta haurren kontrako sexu abusuetan espezializatua, abokatu Administrazio Publikoan.

Haur eta nerabeen eskubideak bermatzen dituen araudia ezagutzea beharrezkoa da horrelako egoera pairatu dutenei behar bezala lagundu ahal izateko. Horretarako, egun indarrean dagoen legeriaren puntu esanguratsuenak ezagutzea eta lantzea nahitaezko suertatzen da. Hala ere, ez da batere ohikoa zuzenbideko profesionalak oinarritzko legeditik haratago, haurren eskubideak babesten dituen legedia menderatzea eta legedi horretatik sortzen diren nazioarteko eragile eta instrumentuen funtzio eta eginbideak ezagutzea.

Nazioarte, estatu eta autonomia-erkidegoen mailako arauak zeintzuk diren ezagutzea, horien hierarkia azaltzea eta praktikan horien aplikazioa nola ematen den lantzea da hitzaldi honen helburua. Izan ere, testu normatiboek jasotzen dutena jakitea nahitaezkoa den heinean, ezinbestekoa da baita jurisprudentziako praktikaren berri izatea. Hain zuzen ere, jakin badakigu gauza bat teoria lantzea dela, eta beste gauza bat praktika, hau da, teoria hori errealitatean nola islatzen den ezagutzea. Hori egin ezean, nola izan beharko lukeen jakingo dugu, baina ez gaur egun kasu baten aurrean dagoen jarduketa juridiko-instituzionalaren errealitatea.

Normatiboki oso herrialde aurreratua gara, badaukagu errespetuzko jarduketa eta akonpainamendu bat egiteko oinarri legal nahikoa. Hala ere emakume, neskato eta haurren babesa betetzen den edo ez aztertzen duten errelatore eta lantaldeen hitzetan (GREVIO, CEDAW, Torturaren aurkako nazioarteko lantaldea, etab.), arazoa ez da legedia bera, baizik eta hura ez dela behar bezala aplikatzen. Askotan kriterio juridikoetatik aldenduta, estereotipoetatik abiatuta jarduten delako. Beraz, guztion artean aztertu beharko dugu teoria hau zergatik ez den errealitatean islatzen eta zer egin dezakegun, guztion artean, egoera honi buelta emateko.

Hori horrela, teoria eta praktika uztartuko dituen solasaldia izango da, zeinetan bertaratuek, zuzenbidean adituak izan edo ez, haur eta nerabeak sexu-abusuak sufritzen dituenean aplikatu beharreko legea zein den identifikatzea lortu nahi den. Bide horretan, zuzenbideko oinarriak azaldu ondoren, arau konkrituak komentatu eta sententzia desberdinak azalduko dira. Era berean, zenbait esperientzia ikusi ahal izango dira, hala nola Kanarietako haur eta gazteen kontrako biolentzian espezializatutako lehenengo instrukzio-epaitegia, Barnahus proiektua, deklarazioa jasotzen laguntzen duten txakurrak, prozedimendu penala azaltzen laguntzen duten ipuinak edota haurren eskubideetan espezializatutako abokatuak. Gaur egun badira haur eta nerabeen eskubideak bermatzen dituzten errespetuzko praktikak eta horiek ezagutzea garrantzizkoa da, haur eta nerabe biktima esku-hartzearen erdian jarri eta nora begiratu dezakegun jakin ahal izateko.

Izan ere, Nazio Batuetako errelatore eta lantaldeek behin eta berriz azpimarratu duten bezala, formakuntza eta espezializazio derrigorrezkoa da egin beharreko bide luzea,

benetan haur eta nerabeen eskubideak errespetatu eta bermatu nahi baditugu. Baina zalantza barik, azkenengo urteetan antolatutako jardunaldi eta formakuntzen arrakasta ikusita, aurrerapauso erraldoiak ematen ari gara bide horretan eta guztion artean helmugara helduko garen ziurtasuna daukat.

HITZALDIA- Eta detekzio ostean zer egin? Haurren interes gorenean oinarritutako kasuen aurreko jarduketa.

EGILEA: Maitane Urizar Elorza. Haur eta lehen hezkuntzako irakaslea eta haur eta gazteen kontrako sexu abusuen alorrean ikerlaria.

Haurren kontrako sexu-abusuen gizarte-salaketa berria da gure testuinguruan. Familia, sexualitatea, haurtzaroa, ebidentzia zientifikoan oinarrituta baino egon beharrean, estereotipo eta mitoz beteriko gaiak izan dira betidanik. Hau ez da arraroa, hurrekin harreman zuzena duten lanbideetako ikasketa arautuetan, barne-formakuntzetan eta abarretan ez delako gaia lantzen.

Are gehiago, haurren kontrako sexu-abusuen prebentzioaren edota detekzio goiztiarraren lanketa, haurren eskubideetan oinarrituta hezkuntza sexu-afektiboa lantzen duen programa zabalago batean txertatu behar bada ere, 2012. urteko ikerketa batek adierazten duenez, Estatu osoan bi-hiru unibertsitatek bakarrik zituzten haurren sexualitatea lantzen zuten hautazko ikasgaiak. Beraz, ez daukagu gaiari heltzeko oinarrizko ezagutzarik (sexualitateari dagozkionak), ezta ezagutza espezifikorik (haurren kontrako sexu-abusuei dagozkienak) ere. Nola egingo da esku-hartze egoki bat, nola helduko zaio errespetuz gaiari, ez badugu gaia lehendik landu?

Problematika bereizi honetan oso gutxitan egoten dira arrasto fisikoak, berez, gizarteko imajinariotik urrun, eraso gehienak ez dira sarketak izaten eta erasotzailea konfiantzazko pertsona den heinean, ez du biolentzia fisikoaren beharrik eraso burutzeko. Hau da, ez da arrasto fisikorik egongo gehienetan edota hauek ez dira froga biribilak izango. Berez, konfiantzazko pertsona horrek egindako manipulazioari esker, biktima erasotzailea bezain erantzulea sentituko da, isilik mantentzeko egiten dizkion mehatxuez gain. Izan ere, haurrak erasotzaileak egindako mehatxuak sinistuko ditu, gizarteko tabuaren erdian, erasotzailearen diskurtsoa delako haurrak jasotzen duen gaiarekiko mezu bakarra. Nola izango da gezurra maite nauen eta ni zaintzen eta mimatzen nauen heldu batek esandakoa?

Beraz, kasu konplexuak izango dira oso, eta mingarriak, haur baten kontrako sexu-erasoak imajinatzeak soilik min egiten digulako profesional baina bereziki pertsona gisa.

Gaia plazaratzean asko aipatu ohi da detektatzeko zaila den problematika dela, hori ez da, berez, gezurra. Alde batetik, kasu gehienak susmoak izango dira, legeak argi azaltzen digu susmoen aurrean salatzeke betebeharra dugula. Baina Katalunian egindako ikerketa baten arabera, profesionalen % 70 inguruk beren ibilbide profesionalean susmoak izan

zituztela ikusi zen, baina laurdenak ere ez zuen jakinarazpenik egin. Adierazleak antzemateko gaitasunik eza eta haien betebeharrak legalak edo salaketa-prozedurak ez ezagutzea, jakinarazpenak egiteko zailtasunak direla identifikatu zuen ikerketak.

Beste alde batetik, egon badaude errebelazioak egiten diren kasuak. Kasu hauetan ere gizarteak huts egiten du. Biktimek kontatu zuten kasuen % 70ean ezer gutxi egin zen edota ez zen ezer egin, eta biktimak kontatu zuen eskolen % 85ek ez zuela ezer egin. Oraindik ere espero dugu biktima batek gure aurrean argitasun osoz zer eta nola gertatu zaion azaltzea. Gu geu kapaz ez ginatkeen zerbait eskatzen diogu haur biktimari.

Kasu baten jarduketa egokia ez da protokolo baten sorketarekin hasten eta amaitzen. Ez soilik ikerketek, legeak berak argi uzten digu sarean egindako esku-hartzea dela eraginkorra, eta, batez ere, biktimekiko errespetuzkoena. Baditugu kasuak non erasotzailea kondenatua izan den eta biktima salatzeaz damutzen den, eta baditugu absolbituak izan diren kasuetako biktimak kontrakoa esaten dutenak. Prozedimendu penala maiz ez da gure esku egongo, baina biktimak eta babesten duenak prozesu hori infernu gisa bizitzea edo ez, nolabait bai, eta hori, formakuntza eta espezializazioaren eskutik etorriko da ezinbestean.

HITZALDIA- Haurren kontrako eraso sexualak: jarduketa eremu pediatrikotik.

EGILEA: Amaia Arbeloa Miranda. Medikuntzan doktorea eta Euskal Herriko Pediatria Sozialaren taldeko Koordinatzailea.

Osasun-zerbitzuak garrantzi handia dauka sexu-abusuen biktimak sistemarekin daukan lehen kontaktua izan daitekeelako. Beraz, bai pediatren eta bai erizainen formakuntzak lehentasuna izan beharko luke. Baina osasun-eremuko profesionalen karrera eta formakuntza jarraituetan ez da gaia lantzen, nahiz eta haurren kontrako sexu-abusuek 5 haurretatik 1i eragin. Hortaz, zentzu horretan, lan handia dago oraindik egiteko, guztiz beharrezkoa baita lan koordinatu bat egitea, batez ere, birbiktimizazioa saihesteko.

Gure helburuak eta eginbeharrak ezagutu behar ditugu, baita egin behar ez duguna ere. Adibidez, ez dagokigu guri kasua ikertzea, baina edozein susmo jakinaraztea gure erantzukizuna da. Gure helburuen barruan diagnostikoan laguntzea (diagnostiko diferentziala eginez), tratamendua ezartzea, autoritateei jakinaraztea (epaitegiari, Ertzaintzari eta gizarte-zerbitzuei), haur eta nerabeen babesa ziurtatzea eta birbiktimizazioa saihestea daude.

Nahiz eta une oro adierazleak detektatzeko adi egon behar dugun, errebelazio bat jaso ezean, zaila izaten da sexu-abusuen diagnostikoa egitea, kasu gehienetan miaketa fisikoa normala izango baita. Adierazleen artean gutxi batzuk espezifikoak izango dira, beste batzuk probableak eta gehienak inespezifikoak. Baina lesiorik ezak ez du inoiz abusua baztertuko.

Kasu baten aurrean bagaude, lehenengo eta behin ebidentzia edo susmo-egoera den jakin behar dugu, gure jarduketa guztiz ezberdina izango baita. Errebelazioa edo lesioak badaude, ebidentziatzat hartuko dugu, eta bestelakoak susmoaren barruan sartuko ditugu. Errebelazioa ez digu zertan biktimak guri kontsultan egin behar, beste pertsona bati egin badio nahikoa izango da prozesu guztia aktibatzen. Ebidentziaren kasuan zuzenean epaitegiarekin jarriko gara kontaktuan eta auzitegi-medikua bertaratzeko eskaera egingo dugu, osasun-eremuko profesionalak osasun-eremuko alderdia lantzen dugulako eta auzitegi-medikuek alderdi penala.

Ebidentziaren aurrean egonez gero, biktimari anamnesia eta miaketa fisikoa egin beharko diogu, baina ez dugu inoiz bi aldiz errepikatuko, beraz, garrantzitsua da biktima non artatuko dugun argi izatea.

Errebelazio bat jasotzen dugunean beti sinesgarritasuna eman beharko diogu. Garrantzi handia dauka epairik ez egiteak, haurrak lagundua eta sinetsia sentitu behar baitu. Elkarrizketa behin bakarrik egin beharko da, enpatia landuz, eta beraz auzitegi-medikuak parte hartuko balu, bera heldu arte itxaron beharko dugu. Miaketa fisikoari dagokionez, beharrezkoa da kasu guztietan, baina behin bakarrik egingo da behar diren profesional guztiak bilduz (pediatra, auzitegi-medikua, ginekologoa, zirujaua, anestesista, osasun mentaleko profesionalak, etab.). Kasuen % 90-95ean esplorazioa normala izango da,

penetrazioa egon denean ere. Lesiorik ezak ez du esan nahi abusurik egon ez denik eta hau ere gure txostenean islatuko dugu.

Tratamendua lesio fisikoak eta emozionalak sendatzera bideratuko da, beti era koordinatuan, esku-hartzeak bikoiztu gabe. Ospitaleko eta lehen arretako pediatriak epaitegi eta beste eragileekin era koordinatuan lan egitea guztiz beharrezkoa da eta horretarako elkar ezagutzea, edo bakoitzaren funtzioak ezagutzea, garrantzitsua izango da. Bakoitzak zer, noiz eta nola egin behar duen jakiteko eta haur biktimari merezi duen arreta eskaintzeko.

HITZALDIA- Hezkidetzaren, SKOLAE programa: prebentzioarako tresna.

EGILEA: Oihana Etxarte Buezo. Musika irakaslea eta sexologoa. SKOLAEko programako aholkularia.

Prebentzioa, definizioz, "negatibotzat jotzen den zerbait gerta ez dadin, hartu behar diren neurriak aurrez hartzea" da. Horregatik diogu hezkidetzaren tresna bat dela, bakarra ez bada ere, neskatoen, emakumeen eta sexu-identitate edo -orientazio ez-hegemonikoak dituzten pertsona guztien aurkako genero-indarkeriak prebenitzeko eta borrokatzeko tresna.

Bestalde, sustatzea zerbaitekiko erantzun edo erreakzio gisa gertaera bat abiaraztea, aktibatzea edo martxan jartzea da, ekintza zehatza egitea aurrera egitearren eta helburua lortzearren. Hezkidetzaren bitartez, ikasleek indarkeriari eta tratu txarrei aurre egiteko tresnak eta trebetasunak eskuratzen dituzte. Hala nola berdintasunetik eza identifikatzen eta oinordetzan jasotako pribilegioak antzematen ikasten dute, indarkeriak ikusten ikasi eta indarkeria horiek baztertzeko edo haiengandik babesteko gaitasuna bereganatzen dute.

Nafarroako hezkuntza-sistemak ibilbide luzea du hezkidetzan; izan ere, duela ia 30 urtetik hona irakasle boluntarioek genero-berdintasuna sustatzeko egindako esperientziak ezagunak dira. Hala ere, 2017tik aurrera, apustu ausarta eta asmo handikoa egin da berdintasunerako hezkuntzaren alde. SKOLAE programa sortu zen, Nafarroako gizarteak komunitatean gertatutako sexu-indarkeriako gertakariak gaitzesten zituen testuinguru batean. Egoera horren aurrean, gobernuak hezkidetzaren alde egin zuen bere agintaldiko ildo estrategiko gisa, eta gaur egun ere indarrean jarraitzen du, urteetan zehar aldaketa politikoak egon diren arren.

Gainera, pixkanaka-pixkanaka, gaur egun arte, berdintasunari eta hezkuntzari buruzko araudi eta legedi zabala ezarri da Europan, estatuan eta foru-aldundietan. Araudi eta legedi horiek hezkuntza-erakundeei erantzukizuna har dezatela eta ikastetxeen hezkidetzaren eraldaketaren buru izan daitezela eskatzen diete.

SKOLAE programak hezkidetzaren ibilbide bat definitzen du, funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietan eta etapa guztietan (0-3 urtetik 18 urtera) nahitaez aplikatu beharrekoa.

Programaren helburua ikasle guztiek berdintasunez bizitzeko gaitasun soziala eta herritarra garatzea da, hau da, beren bizi-proiektua estereotiporik eta indarkeriarik gabe garatu ahal izatea, gizartean bizitzeko beste modu batzuk eraikitzen jakitea, genero-berdintasunean eta sexu-identitate eta -orientazio guztien aniztasunarekiko errespetuan oinarritutakoa. Helburu hori lortzeko, programak hauxe planteatzen du:

- a Ikastetxeek hezkidetzaren-kultura garatzea ahalbidetuko duten egitura egonkorak sortu behar dituzte.
- b Irakasle guztiek gaitasun teoriko-praktikoa izan behar dute, eta horretarako, baliabideak eta hezkidetzari buruzko prestakuntza eta laguntza eman behar zaizkie.
- c Ikasleek ikasgelako eta ikastetxeko hezkidetzako proposamen didaktikoetan parte hartu behar dute.

- d Hezkuntza-komunitateak, oro har, eta zehazki, familiek, hezkidetzaren eraldaketaren partaide izan behar dute, eta horretarako, baliabideak eta prestakuntza eman behar zaizkie.

Araudiaz gain, hezkuntza-praktikak eguneratzea, ezagutza-arlo berriak sartzea eta curriculum androzentrikoa berrikustea eskatzen duen gizarte-premia dago.

SKOLAE programa bizia da, gizartea aurrera doan heinean eraikitzen, heltzen, eguneratzen, hazten eta sendotzen doana.

JARDUNALDIAREN AMAIERAKO LABURPENA

EGILEA: Ainhoa Zabaleta Rueda. Gizarte Pediatriako Euskal Elkarteko idazkaria eta haurren kontrako sexu abusetan eta genero biolentzian aditua.

Bost haur edo nerabeetatik batek sexu abusuak jasango ditu (N. Pereda, 2016). Desgaitasunen bat duten haur edo nerabeen artean, egoera larriagoa da, hirutik batek jasango bait ditu sexu abusuak. Sinestezina dirudien arren, errealitatea ezagutzea ezinbesteko da haurrak babestu nahi baditugu.

Sexu abusuak fisikoak izan daitezke, edo ez. Genitalak ukitu edo sarketaz gain, haur baten aurrean masturbatzea, erlazio sexualak ikustera behartzea, pornografia jarri edo ekoiztera behartzea edota exhibizionismoa ere sexu abusu mota desberdinak dira. Sexu abusuak, sexuaren bidez ematen diren botere abusuak dira. Helburua boterea da eta hau mantentzeko modua, sexua.

Erasotzailea gehienetan gizonezkoa eta inguruko edo familiako pertsona izaten da, nagusiki aita. Biktimak berriz, %80,3n neska dira (Save the Children, 2023).

Erasotzaileak ezezagunak, baztertuak edo buruko osasun arazoak dituzten pertsonak direla dioen mitoa baztertu behar dugu. Haur eta nerabeekin ohiko harremana duten pertsonak izaten dira maiz eta beraz, susmorik pizten ez dutenak.

Haur eta nerabe hauen babes figura nagusia ama izaten da (Save the Children, 2023). Hala ere, horrek ez du adierazten askotan emakume horiek ondorio negatiborik jasaten ez dutenik. Kalte psikologikoak, erlazio sentimentala haustea, guraso bakarreko familia bihurtzea (honek ekar ditzakeen kalte ekonomikoekin), edota umea manipulatzearen salaketa jasotzea (gurasoen alienazio sindromea).

Gizarte guztiak eta bereziki haur eta nerabeekin lan egiten dugun profesionalok dugu ardura gai honetan. Haur eta nerabeak babesteko sareak sortu behar ditugu. Internet bidezko komunikazioan haurren intimitatearen esposizioa saihestu behar dugu, internetek dituen arriskuez jabetu behar gara, besteak beste pornografiarekiko sarbide erraza. Txikitatik sentiarazi behar diegu eskubidea dutela entzunak izateko, ezetz esateko eta laguntza eskatzeko. Txiki txikitatik irakatsi behar diegu beren gorputza berea dela eta norbaitek gaizki sentiarazten baditu edo egin nahi ez duten zer edo zer egitera behartzen baditu, garrantzitsua dela bai gurasoei bai irakasleari kontatzea. Ume txikiekin ez da beharrezko abusuaz esplizituki hitz egitea, nazka bezalako sentimenduak identifikatu eta kontatu ahal izatea izan daiteke lehen pausoa.

Haurtzaroan sexu abusuak jasan dituztela kontatzen duten gehienak adinez nagusiak izaten dira. Agian, txikiagoak zirenean saiatu ziren beste norbait kontatzen baina izan daiteke informazioa jasan zuenak ez sinistu izana edo informazioari behar bezalako garrantzirik eman ez izana. Kontutan hartu behar da, sexu abusuen atzean 2 tabu garrantzitsu daudela; bata sexualitatea eta bestea, familia erakunde gisa. Haur edo nerabe batek sexu abusuen inguruko informazioa ematen badigu, nahiz eta ezingo dugun ziurtatu, egiaztat hartuko dugu eta laguntzeko pausoak emango ditugu. Abusua bera baina mingarriagoa izan daitekeelako laguntza eskatu eta babes gabe sentitzearen ikuspegia.

Haurren aurkako indarkeria hau gelditzeko, beharrezkoak dira beraz, prestakuntza eta lankidetzaren sareak sortzea.